



# Ebaluazio Konpetentzialaren Hezkuntza Aplikazioa (EKHA): ikaslearen ebaluazio globala burutzeko tresna



Ebaluazioa irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak hobetzeko giltza estrategiko gisa ulertuta, formakuntza honek EKHA aplikazioaren bidez ebaluazioa ikasleen hezkuntza-hobekuntzaren zerbitzura jartzea du xede.

**22.Jun - 23.Jun 2026**

**Cod. H19-26**

**Mod.:**

Face-to-face

**Edition**

2026

**Activity type**

Summer course

**Date**

22.Jun - 23.Jun 2026

**Location**

Elbira Zipitria centre

**Languages**

Basque

**Academic Validity**

20 hours

# Organising Committee



## Description

Ebaluazio Konpetentzialaren Hezkuntza Aplikazioa (EKHA) Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman garatutako tresna estrategikoa da. Ebaluazio konpetentziala modu bateratuan, sistematikoan eta arau-esparruarekin koherentzian aplikatzeko helburua du. Uda Ikastaro hau EKHA aplikazioa oinarri hartuta egituratzen da, ebaluazioaren ikuspegi hezitzaile, hezigarri eta etengabea ikastetxeko jardun pedagogikoaren erdigunean kokatzeko.

Formazioak honakoa eskaintzen du: ikaskuntza-prozesuen erregulazioa, jarraipena, ikasleen aurrerapenen eta zailtasunen identifikazioa, ebidentzien askotariko bilketa eta atzeraelikadura hezigarria uztartzen dituen esparru pedagogikoa. Ildo horretan, ikastaroak EKHAren marko kontzeptuala, funtzionamendua eta oinarri teknikoak sakontasunez aztertzen ditu, ebaluazio-irizpideetan oinarritutako ebaluazio konpetentzialaren logika ulertu eta aplikatzeko.

Era berean, aplikazioaren erabilera indarrean dagoen arau-esparruarekin eta ebaluazio konpetentzialaren interpretazio juridikoarekin lotzen da, teoriatik praktikara doan ikuspegi integratuan. Parte-hartzaileek aukera izango dute konpetentzia espezifiketatik funtsezko konpetentzien mailak nola ondorioztatzen diren, ikasleen irteera-profila nola osatzen den eta informazio hori hezkuntza-erabaki pedagogikoak hartzeko nola erabil daitekeen ulertzeko.

Ikastaroak, halaber, ebaluazio inklusibo eta irigarriaren diseinua lantzen du EKHAren testuinguruan, ikasleen aniztasuna kontuan hartzen du ikasleen ikaskuntza-ekitatea bermatzeko. Aplikazioak eskaintzen dituen analisi-aukerek ikasle, talde eta ikastetxe mailako informazioa aztertzea ahalbidetzen dute, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen erregulazioa eta etengabeko hobekuntza planifikatzea erraztuz.

Azken batean, ikastaro honek EKHA aplikazioa ardatz gisa hartzen du ebaluazioa ikaskuntzaren zerbitzura jartzeko, irakasleei marko teoriko sendoa eta aplikazio-esparru egituratua eskainiz, ebaluazioa kontrol- edo sailkapen-tresnatik harago ulertuta, ikasleen ikaskuntza-hobekuntzaren eta ikastetxearen eraldaketa pedagogikoaren palanka estrategikoa gisa.

## Objectives

EKHA aplikazioaren markoa, ezaugarriak eta oinarriak ezagutzea, baita ikastetxeko ebaluazio-prozesuetan duen inpaktu positiboa identifikatzea ere, praktika onen azterketa eta esperimentazioaren bidez.

Ebaluazio konpetentzialaren alderdi pedagogikoa bermatzea, egungo arau-esparrua ulertuz eta ikuspegi hori hezkuntza-praktikara eramanez.

EKHA aplikatiboaren inguruko oinarritzko ezagutza teknikoak barneratzea, marko juridikoarekin duten lotura ulertzeko eta erabilpen egokia ahalbidetzeko.

Ebaluazio konpetentzialak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan benetako inpaktu positiboa izan dezan, ikastetxeek hartu beharreko erabaki pedagogikoak, antolaketa-ereduak eta planifikazio-estrategiak ezagutzea eta aztertzea.

## In collaboration with



# Program

## 22-06-2026

09:00 - 09:15 Registration

---

09:15 - 10:45 “Curriculumaren paradigma aldaketa eta ebaluazioaren marko pedagogikoa”

Language: Basque

**Amaia Jaio Bustindui** | Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza Ikuskaritza  
**Asier Ibeas Sacristan** | Hezilab

---

10:45 - 11:15 Break

---

11:15 - 12:45 “Programazio, ikasegoera eta ataza konpetentzialen diseinua”

Language: Basque

**Ane Lizeaga Zabalegi** | Hezilab

---

12:45 - 13:15 “EKHA aplikazioaren aurkezpena”

Language: Basque

**Amaia Jaio Bustindui** | Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza Ikuskaritza

---

13:15 - 13:30 Synthesis

---

## 23-06-2026

09:00 - 10:30 “Ebaluazio konpetentzialaren antolaketa Zuzendaritza eta BeA ikuspegitik”

Language: Basque

**Jaso Larruscain Sarasola** | Hirubide BHI  
**Leire Gandarias Ispizua** | Hirubide BHI

---

10:30 - 11:30 “EKHA aplikazioaren praktika arrakastatsua”

Language: Basque

**Gorka Camara Hierro** | Markina BHI  
**Egoitz Atxikallende Ortuzar** | Markina BHI

---

11:30 - 12:00 Break

---

12:00 - 13:00 “8. EKHA aplikazioaren algoritmoa”

Language: Basque

**Gorka Camara Hierro** | Markina BHI  
**Egoitz Atxikallende Ortuzar** | Markina BHI

---

13:00 - 14:00

“9. EKHA, aniztasunaren erantzule: Aniztasun curricularra, JPP, NCE, EUSLE, gainditu gabeak eta abar.”

Language: Basque

**Amaia Jaio Bustindui** | Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza Ikuskaritza  
**Asier Ibeas Sacristan** | Hezilab

---

14:00 - 14:10

Synthesis

---

## Directed by



### **Asier Ibeas Sacristan**

Berritzegune Nagusia

---

Berritzegune Nagusia - EAEko Hezkuntza Saila Lehen Mailako Heziketarako Irakaslea ikasketetan Diplomaturatua (EHU-UPV, 2012) eta Lehen Mailako Heziketarako Ingeleseko Irakaslea ikasketetan Gradutua (UPSA, 2013) da. EAEko askotariko HLHItan irakasle, koordinatzaile eta Berrikuntza Arduraduna (BeA) izan ondoren, 2024 geroztik, Berritzegune Nagusiko digitalizazio eta berrikuntza tekno-pedagogikoaren aholkularitzan dihardu; zehazki, Future Classroom Lab proiektua oinarri duen IkasLab ekimena EAEko HLHI eta BHI ikastetxe ezberdinak pilotatzen. Espazioa hirugarren hezitzaile gisa erabiliz eta teknologiak baliatuz, irakaskuntza ikaskuntza prozesuak hobetzeko eta inklusiboago egiteko helburuarekin. Bestalde, eragile ezberdinei, eraldaketa estrategietan eta trantsizio prozesuetan aholkularitza eskaini izan du arlor ezberdinetan, hala nola, ebaluazio global kompetentzialetan, materialgintzan, formakuntzan zein metodologia aktiboetan.

## Teachers



### **Egoitz Atxikallende Ortuzar**

---

Egoitz Atxikallende Ortuzar Markina BHIko Teknologia eta Digitalizazioko irakaslea da gaur egun. Bere ibilbide profesionala arlo pribatuan hasi bazuen ere 20 urte egingo ditu bigarren hezkuntzako irakasle lanetan. Euskal Herriko unibertsitatean Industria Ingeniaritza teknikoko ikasketak burutu zituen eta, ostean, Mondragon Unibertsitatean Ingeniaritza gradua osatu zuen. Bizitza osoa formatzen eman du. EHU-UPNko Kultura Zientifikoko Masterra ere burutu zuen besteak beste. Irakaskuntzan 2007 murgildu zen ordezko moduan lehenengo eta 2018tik funtzionario moduan. Markina-Xemeingo bigarren hezkuntzako ikastetxean daramatza azken 6 ikasturteak eta Berrikuntza arduraduna da laugarren urtez. Urte honetan EKHA (Ebaluazio Konpetentzialaren Hezkuntza Aplikazioa) aplikazioaren talde eragilean ari da lanean, ikastetxeen erabiltzaile-ikuspegia txertatuz eta aplikazioaren hobekuntza eta garapen pedagogikorako proposamenak eginez.



### **Gorka Camara Hierro**

---

Gorka Cámara Hierro gaur egun Markina BHIko Matematikako irakaslea da, eta ikasturte honetan bertan egin du laugarren ikasturtea zentro horretan. Bere ibilbide profesionala, ordea, luzea eta anitza izan da hezkuntzaren eta arlo zientifiko-teknikoaren arteko loturan. Euskal Herriko Unibertsitatean Fisikako gradua ikasten hasi zen, eta ikasketa-planaren aldaketaren ondorioz 2001ean Ingeniaritza Elektronikoko eta Automatikoko titulua eskuratu zuen. 2001-2002 ikasturtean Ikerlaneko Potentzia Elektronikoko sailean bekadun gisa jardun zuen. Irakaskuntzan 2002-2003 ikasturtean hasi zen Txantxiku Ikastolan, eta bertan hiru ikasturte eman zituen arlo zientifikoko ikasgaiak ematen eta tutoretza-lanak egiten. 2005-2006 ikasturtetik aurrera hezkuntza publikoko irakasle gisa dihardu, DBHn, DBHOn, Lanbide Heziketan eta HHI etapetan, hainbat materia irakatsiz. Bere irakasle-lanaz gain, urte hauetan hezkuntza-sisteman ardura eta rol askotarikoak bete ditu, besteak beste: irakasle eta tutore lanak, mintegi-buru, BODI, ikasketa-buru, praktiketako irakasleen tutore, COVID arduradun, OPE-ko tribunaleko kide gisa, eta abar. Azken hilabeteetan, gainera, EKHA (Ebaluazio Konpetentzialaren Hezkuntza Aplikazioa) aplikazioaren talde eragileko kidea da, ikaste



### **Leire Gandarias Ispizua**

Leire Gandarias Ispizua (1989). Euskal Filologia ikasketak egindakoa Euskal Herriko Unibertsitatean. Fonetika eta Fonologia Masterra egin zuen Madrilgo Centro Superior de Investigaciones Científicas (CSIC) institutuan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra Valentziako Unibertsitatean. EHUko EUDIA ikertaldean euskararen prosodia aztertzen aritu ostean, azken urteotan Euskara irakasle dihardu bigarren hezkuntzan. Hirubide BHI ikastetxeko Berrikuntza Arduraduna da hirugarren urtez. Hirubide BHI ikastetxeak DREAM ikertaldearen HIGAEU proiektuan parte hartu du, Gaztelania, Ingelesa, Geografia eta Historia eta Biologia-Geologia jakintzagaietan ikasleen hizkuntza-gaitasun akademikoa eta edukiaren ulermena hobetzeko asmoz.



### **Asier Ibeas Sacristan**

Berritzegune Nagusia

---

Berritzegune Nagusia - EAEko Hezkuntza Saila Lehen Mailako Heziketarako Irakaslea ikasketetan Diplomaturatua (EHU-UPV, 2012) eta Lehen Mailako Heziketarako Ingeleseko Irakaslea ikasketetan Graduatua (UPSA, 2013) da. EAEko askotariko HLHItan irakasle, koordinatzaile eta Berrikuntza Arduraduna (BeA) izan ondoren, 2024 geroztik, Berritzegune Nagusiko digitalizazio eta berrikuntza tekno-pedagogikoaren aholkularitzan dihardu; zehazki, Future Classroom Lab proiektua oinarri duen IkasLab ekimena EAEko HLHI eta BHI ikastetxe ezberdinak pilotatzen. Espazioa hirugarren hezitzaile gisa erabiliz eta teknologiak baliatuz, irakaskuntza ikaskuntza prozesuak hobetzeko eta inklusiboago egiteko helburuarekin. Bestalde, eragile ezberdinei, eraldaketa estrategietan eta trantsizio prozesuetan aholkularitza eskaini izan du arlor ezberdinetan, hala nola, ebaluazio global konpetentzialetan, materialgintzan, formakuntzan zein metodologia aktiboetan.



### **Amaia Jaio Bustindui**

---

Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan Lizentziatua (EHU,1992) Euskal Filologian irakasle Diplomatura (EHU,1995) Hezkuntza Saileko ikuskaria 2019tik, EAE Hezkuntza Curriculumaren eraberritzerako lan taldeen koordinatzailea, eta EKHA aplikazioaren talde eragileko arduraduna. Donostiako Berritzeguneko Zuzendaria. Eusko Jaurlaritzako prestakuntza eta berrikuntza Zentroa 2015etik 2019ra. Donostiako Arantzazuko Ama BHI-ko Zuzendaria 2006tik 2013ra Hezkuntza Saileko irakaslea Lehen eta Bigarren Hezkuntzan 1985etik 2015era



## **Jaso Larruscain Sarasola**

---

Telekomunikazio Goi Mailako Ingeniaria, EHU (2001) Enpresa Administrazioiko Masterra, Executive-MBA, Deustu (2009) Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzako Unibertsitate Masterra, UNIR (2014) Ingeniaritzan Doktorea, Proiektuen Zuzendaritzan, EHU (2017) Unibertsitateko irakaslearen akreditazioa (UNIBASQ, ANECA 2019) Análisi Politikoko Unibertsitate Masterra, UOC (2022) Sektore pribatuan, telekomunikazioen sektoreko nazioarteko proiektuen kudeatzaile gisa hasi zuen bere karrera profesionala IKUSI Ángel Iglesias enpresan, eta sektore emergente eta ekonomia iraunkorreko teknikari gisa jarraitu zuen Donostiako Sustapenean (Donostiako Udala). Bere ikerketa-ibilbidean, AEBn, Erresuma Batuan eta Frantzian nazioarteko egonaldiak egin zituen, eta unibertsitateko irakasle gisa lan egin zuen EHU-n, Finantza Zuzendaritza, Antolakuntza, Ekonomia eta Kudeaketa arloetan. Hizlari gisa parte hartu du proiektuei eta hezkuntzari buruzko nazioarteko kongresuetan, eta lankidetzareei, metodologia aktiboei eta ezagutzaren transferentziari buruzko ikerketa-lanak argitaratu ditu, TFM Research Group ikertaldean. 2019az geroztik, karrerako funtzionarioa da eta Teknologiako irakasle izan da, lanbide-heziketako zein bigarren hezkuntzako ikastetxeetan la



## **Ane Lizeaga Zabalegi**

---

Ingeniera Técnica en Electrónica (EHU-UPV, 2008), cursó también el Máster de Profesorado en Secundaria (UNIR, 2014). Comenzó a trabajar como responsable en el diseño de proyectos eléctricos y seguimiento de obras. En el mundo educativo comenzó en el año 2010 impartiendo clases en el ámbito científico-tecnológico y de formación profesional en la enseñanza secundaria. Además, ha sido responsable de calidad durante varios cursos. En el año 2018 se incorporó a la escuela pública como profesora de tecnología. Ha sido responsable de las TIC durante dos cursos y ha trabajado para promover la ciberconvivencia. En este sentido, también desde el punto de vista de la convivencia, ha participado en varias jornadas. Desde el año 2023 es asesora del Berritzegune Nagusia (hoy Hezilab) en el ámbito de la digitalización y la innovación tecno-pedagógica. Este curso se ha centrado especialmente en el Programa de formación ADI. El objetivo de este proyecto ha sido promover el pensamiento computacional, la programación y la robótica en los centros educativos. En la evaluación formativa ha participado en formaciones para analizar las posibilidades que la Inteligencia Artificial (IA) puede ofrecer.

# Registration fees

<b>FACE-TO-FACE</b>	<b>UNTIL 22-06-2026</b>
General	87,00 EUR
<a href="#">Reduced fee regular</a>	74,00 EUR
<a href="#">Registration exemptions</a>	61,00 EUR
<a href="#">joug fee</a>	25,00 EUR
<a href="#">Courses for everyone</a>	74,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	74,00 EUR
<a href="#">Professionals and students of euskaltegis or approved self-learning centers</a>	74,00 EUR
<a href="#">Learn to Teach - Basque Government</a>	74,00 EUR
<b>LIVE ONLINE</b>	<b>UNTIL 22-06-2026</b>
General	87,00 EUR
<a href="#">Reduced fee regular</a>	74,00 EUR
<a href="#">Registration exemptions</a>	61,00 EUR
<a href="#">joug fee</a>	25,00 EUR
<a href="#">Courses for everyone</a>	74,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	74,00 EUR
<a href="#">Professionals and students of euskaltegis or approved self-learning centers</a>	74,00 EUR
<a href="#">Learn to Teach - Basque Government</a>	74,00 EUR

## **Place**

### **Elbira Zipitria centre**

Paseo de Ondarreta 18. 20018 - Donostia-San Sebastián

Gipuzkoa